**UDALEKO OSOKO BILKURAREN OHIKO BILERA**

**2017ko ilbeltzaren 27a**

Lesakako Herriko Etxeko Bilera Aretoan, bi mila eta hamazazpigarren urteko ilbeltzaren hogeita zazpian, ortziralea, ilunabarreko zazpietan, udaleko Osoko Bilkura bildu da, ohiko bileran eta lehenengo deialdian, Jose Luis Echegaray Andueza alkate jaunaren lehendakaritzapean eta honako zinegotzi hauek etorri direla: Iban de Prado Etxepeteleku, Pedro Apezteguía Alzugaray, Maria Victoria Gortari Aldave, Esteban Irazoqui Irazoqui, Jose Maria Portu Ochoteco, Maider Arrieta Tapia, Lorea Flores Compains eta Severiano Txoperena Matxikote jaun-andreak.

Ez dira agertu Mattin Etxabide Gartzia eta Oier Iantzi Ordoki zinegotzi jaunak, eta ez etorri izana justifikatu dute.

Idazkari lanetan, Andoni Esparza Leibar jauna ari da, udaleko idazkaria.

2015eko ekainaren 19ko Osoko Bilkuran erabakitakoarekin bat, bilkura guziaren soinu-grabaketa eginen da, geroago Udalaren web orrian zintzilikatzeko xedearekin. Akten idazkerari dagokionez, kontuan hartu da 2016ko maiatzaren 20an eginiko bilkurako 1. puntuan adierazitakoa.

Alkate jaunaren aginduz, bilkura hasi da eta, deialdiari jarraituz, honako gai hauei buruz aritu dira:

**SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DEL AYUNTAMIENTO**

**27 de enero de 2017**

En el Ayuntamiento de la Villa de Lesaka, siendo las diecinueve horas del viernes 27 de enero del año dos mil diecisiete, se reúne, en sesión ordinaria y a primera convocatoria, el Pleno municipal, presidido por el señor alcalde don José Luis Echegaray Andueza y con la asistencia de los siguientes concejales: don Iban de Prado Etxepeteleku, don Pedro Apezteguía Alzugaray, doña María Victoria Gortari Aldave, don Esteban Irazoqui Irazoqui, don José María Portu Ochoteco, doña Maider Arrieta Tapia, doña Lorea Flores Compains y don Severiano Txoperena Matxikote.

No acuden, habiendo excusado su inasistencia, los concejales don Mattin Etxabide Gartzia y don Oier Iantzi Ordoki.

Actúa como secretario, el de la Corporación, don Andoni Esparza Leibar.

En cumplimiento de lo acordado por el Pleno del Ayuntamiento con fecha 19 de junio de 2015, se realizará una grabación de sonido de la totalidad de la sesión, con el fin de colgarla posteriormente en la página web municipal. En cuanto a la redacción de las actas, se tiene en cuenta lo indicado en el punto 1 de la celebrada el 20 de mayo de 2016.

Por disposición del señor alcalde se da comienzo a la sesión en la que, conforme a la convocatoria, son tratados los siguientes asuntos:

**1 – AZKEN BILKURARI DAGOKION AKTAREN ONESPENA**

Osoko Bilkurak, aho batez, azken bilkurako akta onartu du, 2016ko abenduaren 23koa.

**1 – APROBACIÓN DEL ACTA CORRESPONDIENTE A LA ÚLTIMA SESIÓN**

El Pleno aprueba por unanimidad el acta de la última sesión, celebrada el día 23 de diciembre de 2016.

**2 – INFORMAZIOA DAKA QUADS S.L.-RI BURUZKO EPAIEN ONDOREN PLANTEATURIKO EGOERAREN INGURUAN**

Alkaiaga auzoko finka horretan (katastroko 1. poligonoko 179. lurzatia), arazo urbanistikoak sortu dira 2000. urtetik. Juan Ignacio Irigoyen Garcia jaunak eraiki zituen, obra baimenik gabe, pabiloi bat eta amaitu gabe gelditu zen bertze eraikin bat, biak bere motozikleta negozioarekin zerikusia zutenak. Bere kontrako hainbat sententzien ondoren, bi eraikin horiek eraitsi behar izan zituen.

Baina, aitzineko legealdian, 2012ko uztailaren 6ko Alkatetzaren 283/2012 zenbakiko Ebazpenak jarduera eta obra baimenak eman zizkion Daka Quads S.L.-ri, leku horretan berean tailer bat eta motozikletak eta ziklomotoreak saltzeko puntua behin-behinean jartzeko.

Baimenetako eta prozesu judizialetako prozesu konplexuaren ondoren, Nafarroako Auzitegi Nagusiaren 185/2016 eta 515/2016 zenbakiko apelazio sententziek ezarri dute emaniko baimenak ez direla indarreko araudiari egokitzen eta lizentzia hori ez dela administrazio-isiltasun

**2 – INFORMACIÓN SOBRE LA SITUACIÓN PLANTEADA TRAS LAS SENTENCIAS SOBRE DAKA QUADS S.L.**

En esta finca del barrio de Alkaiaga (parcela 179 del polígono 1 del catastro), se han generado problemas urbanísticos desde el año 2000. Don Juan Ignacio Irigoyen García construyó, sin licencia de obra, un pabellón y otra edificación que quedó inacabada, relacionadas ambas con su negocio de motocicletas. Tras diversas sentencias en su contra, se vio obligado a demoler ambas edificaciones.

Pero, en la anterior legislatura, la Resolución de la Alcaldía 283/2012, de 6 de julio de 2012, concedió a Daka Quads S.L. licencia de actividad y de obra para la instalación provisional, en ese mismo lugar, de un taller y punto de venta de motocicletas y ciclomotores.

Tras un complejo proceso de autorizaciones y procesos judiciales, las sentencias de apelación del Tribunal Superior de Justicia de Navarra números 185/2016 y 515/2016 han establecido que las autorizaciones concedidas no se ajustan a la normativa vigente y que no ha sido obtenida esa

positiboagatik lortu. Horietatik guztietatik ondorioztatzen da eginiko eraikuntzek euskarri juridikoa falta dutela eta Alkarrekin S.A. errekurtsogileak eska dezakeela sententziak betetzeko.

Bertzalde, 2016ko abenduaren 14ko Alkatetzaren 418/2016 zenbakiko ebazpenak ukatu zuen Juan Ignacio Irigoyen Garcia jaunak, Daka Quads S.L.-ren izenean, eskaturiko obra-baimena, 240 $m^2$-ko teilapea egiteko, non erabilitako motoak sartuko liratekeen.

Aipaturiko lursaila hirigintzako Udal Planeko U.E. 26ko parte da.

Alkate jaunak adierazi du beharrezkoa ikusten duela Udabatzak planteaturiko egoeraren jakitun izatea. Gaineratu du negoziatzen ari dela U.E. 26ko aldaketa bat, planteaturiko arazoari irtenbidea emateko modua izanen litzatekeena.

Ondoren, eztabaida izan da, eta parte hartu dute Severiano Txoperena zinegotziak eta alkateak.

licencia por silencio administrativo positivo. De todo ello se deriva que las construcciones realizadas carecen de soporte jurídico y que la recurrente Alkarrekin S.A puede solicitar la ejecución de las sentencias.

Por otra parte, la Resolución de la Alcaldía 418/2016, de 14 de diciembre de 2016, denegó la licencia de obras solicitada por don Juan Ignacio Irigoyen García, actuando en representación de Daka Quads S.L, para construir una tejavana de 240 $m^2$, en la que se alojarían las motos usadas.

Dicha finca forma parte de la U.E. 26 del Plan Municipal de urbanismo.

El señor alcalde indica que considera necesario el que la Corporación esté informada de la situación planteada. Añade que se está negociando una modificación de la U.E. 26, que sería la forma de dar una salida al problema planteado.

Seguidamente se produce un debate, con intervención del concejal Severiano Txoperena y del alcalde.

**3 – ARIZTEGUI FAMILIAK ESKATURIKO OIHAN APROBETXAMENDUAK**

2016ko abenduaren 21ean aurkezturiko eskaera aztertuta (3413. sarrera Udaleko Erregistro Orokorrean), eta Xabier Ariztegi Huarte, Gloria Maria Concepción Ariztegui Huarte, Miguel Maria Ariztegui Huarte eta Ricardo Ariztegui Tellechea jaun-andreek sinatua dutena, Osoko Bilkurak honako hau erabaki du aho batez:

**3 – APROVECHAMIENTOS FORESTALES SOLICITADOS POR LA FAMILIA ARIZTEGUI**

Examinada la instancia presentada con fecha 21 de diciembre de 2016 (entrada nº 3413 en el Registro General del Ayuntamiento) y que suscriben don Xabier Ariztegi Huarte, doña Gloria María Concepción Ariztegui Huarte, don Miguel María Ariztegui Huarte y don Ricardo Ariztegui Tellechea, el Pleno acuerda por unanimidad:

1 – Nafarroako Gobernuko Oihanaren Kudeaketa Zerbitzuaren aitzinean tramitatzea honako oihan aprobetxamenduak egiteko eskaera: hiru finkatan dauden intsinis pinuk bakantzea, denetara 148.000 m2-ko azalera dutenak eta Zarrola, Urraba eta Zokoaundi alderdietan daudenak. Katastroko honako erreferentziak dituzte: 6. poligonoko 25. lurzatiaren zatia, 5. poligonoko 12. lurzatiaren O azpipartzelaren zatia, 6. poligonoko 103 eta 104 lurzatiak, eta 4. poligonoko 13. lurzatiaren F azpipartzelaren zatia (aprobetxamenduan erreferentzia: Oihapart/2016/12).

2 – Lanak hasi baino lehen horren berri eman beharko diote Udalari, eta baita aprobetxamendua amaitu baino lehen ere, hark egiaztatu ahal izateko nola gelditu diren erabili diren bideak.

Halaber, ezarritako fidantza jarri beharko du, eta hori zenbatekoa den jakinaraziko zaio.

Bideak ezin izanen dira egoera txarrean utzi. Hori gertatuz gero, hamabortz eguneko epea emanen zaio haiek konpontzeko. Bertzela, Udalak berak moldatuko ditu, aprobetxamendua egin duten jabeen kontura.

Orokorrean, eguraldi euritsuarekin ezin izanen da egurrik garraiatu, baldin eta horretarako baimen espresa ematen ez bazaio.

3 – Eskatzaileei jakinaraztea finka batzuk komunal ageri direla udal katastroan, eta dagokion transakzio-hitzarmena sinatua dutela Udalarekin.

1°) Tramitar ante el Servicio de Gestión Forestal del Gobierno de Navarra la solicitud para realizar los siguientes aprovechamientos forestales: clareo de pino insignis en tres fincas que tienen una superficie total de 148.000 m$^2$ y se hallan ubicadas en los parajes de Zarrola, Urraba y Zokoaundi. Corresponden en el catastro a parte de la parcela 25 del polígono 6, parte de la subparcela O de la parcela 12 del polígono 5, a las parcelas 103 y 104 del polígono 6 y a parte de la subparcela F de la parcela 13 del polígono 4 del catastro (Referencia del aprovechamiento: Oihapart/2016/12).

2°) Con carácter previo al comienzo de las labores de saca, deberán comunicárselo al Ayuntamiento y también antes de finalizar las mismas, a fin de que éste pueda comprobar el estado de los caminos utilizados.

Asimismo, tendrá que constituir la fianza establecida, cuyo importe le será comunicado.

Los caminos no podrán dejarse en malas condiciones. Si esto sucediera, se le dará un plazo de quince días para arreglarlos. En caso contrario, los reparará el Ayuntamiento, a cargo de los propietarios del aprovechamiento.

En general, no podrá transportarse madera con tiempo lluvioso, salvo que se le conceda una autorización expresa para ello.

3°) Comunicarles que parte de las fincas figuran como comunales en el catastro municipal, habiéndose suscrito el correspondiente convenio transaccional con el Ayuntamiento.

**4 – MARICHALAR ITURBIDE ANAIEK ESKATURIKO OIHAN APROBETXAMENDUAK**

2017ko ilbeltzaren 11n aurkezturiko eskaera aztertuta (100 zenbakiko sarrera Udaleko Erregistro Orokorrean), eta Jose Ramon eta Juan Esteban Marichalar Iturbide anai jaunek sinatua dutena, Osoko Bilkurak aho batez honako hau erabaki du:

1 – Nafarroako Gobernuko Oihanaren Kudeaketa Zerbitzuaren aitzinean tramitatzea honako oihan aprobetxamendu hauek egiteko eskaera: intsinis pinu, alertze, altzifre eta haritz amerikarren matarrasa hainbat finkatan, guztira 53.100 m$^2$-ko azalera dutenak. Txakain, Elortegi, Amotrin eta Urraba alderdietan daude (aprobetxamenduaren erreferentzia: Oihapart/2017/1).

2 – Lanak hasi baino lehen horren berri eman beharko diote Udalari, eta baita aprobetxamendua amaitu baino lehen ere, hark egiaztatu ahal izateko nola gelditu diren erabili diren bideak.

Halaber, ezarritako fidantza jarri beharko du, eta hura zenbatekoa den jakinaraziko zaio.

Bideak ezin izanen dira egoera txarrean utzi. Hori gertatuz gero, hamabortz eguneko epea emanen zaio haiek konpontzeko. Bertzela, Udalak berak moldatuko ditu, aprobetxamendua egin duten jabeen kontura.

Orokorrean, eguraldi euritsuarekin ezin izanen da egurrik garraiatu, baldin eta horretarako baimen espresa ematen ez bazaio.

**4 - APROVECHAMIENTOS FORESTALES SOLICITADOS POR LOS HERMANOS MARICHALAR ITURBIDE**

Examinada la instancia presentada con fecha 11 de enero de 2017 (entrada nº 100 en el Registro General del Ayuntamiento) y que suscriben los hermanos don José Ramón y don Juan Esteban Marichalar Iturbide, el Pleno acuerda por unanimidad:

1º) Tramitar ante el Servicio de Gestión Forestal del Gobierno de Navarra la solicitud para realizar los siguientes aprovechamientos forestales: matarrasa de pino insignis, alerce, ciprés y roble americano en varias fincas, con una superficie total de 53.100 m$^2$. Se hallan ubicadas en los parajes de Txakain, Elortegi, Amotrin y Urraba (Referencia del aprovechamiento: Oihapart/2017/1).

2º) Con carácter previo al comienzo de las labores de saca, deberán comunicárselo al Ayuntamiento y también antes de finalizar las mismas, a fin de que éste pueda comprobar el estado de los caminos utilizados.

Asimismo, tendrá que constituir la fianza establecida, cuyo importe le será comunicado.

Los caminos no podrán dejarse en malas condiciones. Si esto sucediera, se le dará un plazo de quince días para arreglarlos. En caso contrario, los reparará el Ayuntamiento, a cargo de los propietarios del aprovechamiento.

En general, no podrá transportarse madera con tiempo lluvioso, salvo que se le conceda una autorización expresa para ello.

3 – Eskatzaileei jakinaraztea lur-eremu horiek komunal ageri direla udal katastroan eta, horregatik, erabaki honek ez duela deus adierazten haien jabetzari dagokienez.

3°) Comunicarles que las fincas figuran como comunales en el catastro municipal, por lo que este acuerdo no supone pronunciamiento alguno sobre la propiedad de las mismas.

**5 – ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Zinegotzi guziei pasatu zaie, posta elektronikoz, azken osoko bilkuratik gaur arte Alkatetzak emaniko ebazpenen zerrenda. Ez dutenei, aipatu zerrenda horren paperean inprimaturiko kopia bana utzi zaie, bakoitzari dagokion erretiluan.

**5 - CONOCIMIENTO DE LAS RESOLUCIONES DE LA ALCALDÍA**

Se ha pasado a todos los concejales, mediante correo electrónico, la relación de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía desde la última sesión hasta el día de hoy. A los que no lo tienen, se les deja una copia impresa en papel de la citada lista, en su respectiva bandeja.

Ondoren, eta Toki Erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko Erregelamenduaren 91.4 artikuluak xedatutakoaren arabera, alkate jaunak galdetu du ea talde politikoren batek premiazko arrazoiak direla-eta Udalbatzak eztabaidatzea nahi duen aferarik ote duen, deialdiarekin batera zihoan gai-zerrendan ez zegoena eta "eskari-galderak" puntuan sartzerik ez duena.

Ez da inolako gairik planteatu.

Seguidamente y conforme a lo establecido por el artículo 91.4 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales, el señor alcalde pregunta si algún grupo político desea someter a la consideración del Pleno, por razones de urgencia, algún asunto no comprendido en el orden del día que acompañaba a la convocatoria y que no tenga cabida en el punto de ruegos y preguntas.

No se plantea cuestión alguna.

**6 – OSOKO BILKURAKO KONTROL-JARDUERA. ESKARI-GALDERAK**

Ez da izan.

Aipaturiko eguneko ilunabarreko zazpiak eta hamaika minutu direnean eta eztabaidatzeko gai gehiago ez dagoenez, alkate jaunak akabatutzat eman du bilera. Nik, idazkariak, egiaztatu egiten dut.

**6 – ACTIVIDAD DE CONTROL DEL PLENO. RUEGOS Y PREGUNTAS.**

No se formulan.

Siendo las diecinueve horas y once minutos del día de la fecha y no habiendo más asuntos que tratar, el señor alcalde da por finalizada la sesión. De todo ello yo, como secretario, certifico.